

MERKATUAREN SEGMENTAZIOA:

Gure bezeroak hiru talde nagusitan banatu ditzakegu: gazteak, helduak eta kirolariak.

- Gazteei dagokionez ikusi dugu Gazteen Euskal Behatokiaren arabera 15 eta 29 urte arteko arabar gazteen %27,9a **egunero** erabiltzen dutela bizikleta eta 6 eta 19 urte artekoen artean azken urteetako datuak hirukoiztu egin direla. Gure helburuen artean dago gazte hauek aukera izatea egunero ikastetxeetara edota haien lanpostura bizikletaz joatea, eta gainera txirrindularitza haien artean kirol moduan ezagutaraztea eta bultzatzea.
- Helduei erreparatuz Gasteiz da Espainiar Estatuan batez beste lanera bizikletaz pertsona gehien joaten diren hiria. Horrez gain, estatistikak kontuan hartuta, ikusi dezakegu Gasteiz Espainiar Estatuan biztanleko bidegorri kilometro gehien duen hiria dela, guztien batura 50km baino gehiagokoa izanik, hala ere, zenbaiten arabera zifra hori 78,1 kilometrokoa zen 2016an.
- Azkenik kirolariak aurkitu ditzakegu. Hauek txirrindularitzaren disziplina ezberdina modu serio batean praktikatzen dituztenak izango dira. Talde honek aurreko taldeek baino material edo arreta espezifikagoa beharko dute exigentzia ezberdinak direla eta. Hala ere hauek asetzeko produktu gama handia izango dugu.